

IKAPP

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Ikasketetako denbora kudeaketa egokiago bat antolatzeko, ikasketa metodo pertsonalizatuak eskaintzeko, apunteak egiterako orduan hobekuntza bat bermatzeko...

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Garatzen ari zaren aplikazioak ikasleentzako funtsezko behar eta arazo hauek konpontzen Sortzen ari garen aplikazioa ikasleen behar akademiko guztiak betetzen dituen tresna izateagatik nabarmentzen da. Zereginak kudeatu, oharrak partekatu eta proiektuetan elkarlanean aritzeko gaitasuna ematen du. Bestalde, eraginkortasuna, denbora aurreztea eta erabiltzailearen esperientzia hobetua eskaintzen du.

Bezeroek erosotasuna aurkituko dute aplikazioak pertsona bakoitzarekin adaptatzeko duen gaitasunarekin, datuen segurtasunarekin, etengabeko eguneratzeekin eta aplikazioak eskaintzen duen laguntza sendoarekin. Laburbilduz, aplikazioak irtenbide osatua eta pertsonalizatua ematen du errendimendu akademikoa eta ikasleen antolamendua hobetzeko.

IKAPP edozein ikasletara egokitzen den aplikazioa da. Edonork amestuko luke horrelako batekin. Zergatik? Hainbat tresna izango dira eskuragarri gaur egungo ikasleei beraien arazoak konpontzen lagundu ahal izateko, hau da, etorkizunari. Apunteak trukatzeko gai izango dira plataforman dauden gainontzeko ikasleekin, komunikazioa errazten duen chat bat edukiko dute edozein zalantza, galdera... kontsultatzeko. Beraien prozesuaren jarraipen pertsonalizatu bat egingo da, eta horrekin batera motibazioa izango da protagonista ikasleak ahalik eta jarrera hobereenarekin jarrai dezaten beraien ikasketa prozesuan aurrera.